

Arantxa Urbe

HIK HASIKO KIDEA

Gastua ala inbertsioa?

Presa usaina hartu dute jada gure goizek. Eta irailarekin batera, egunerokotasuna heldu da gure mundu txikira, hezkuntza mundura.

Ikastetxeetako ateak zabaldu direnean, ordea, ikusi dugu krisia —edo krisiaren aitzakia: *Geu hortan!*—, gure aurretik heldu dela eskolara.

Batean irakasleak falta direla, bestean ordezkapenak ez direla beteko... murrizketak eta murrizketak! Horra hor eskola bazter guztietako kontua. Horren guztiaren aurrean greba eta protesta oihuak zabaldu dira han eta hemen. Eta hasi besterik egin ez den ikasturtearen ibilbide laburrak erakutsi digu ikasturte berria ez dela oso gozo agertu.

Auskalo zer erantzungo lukeen ikasle batek murrizketa hitzak zer iradokitzen dion galdetuz gero. Haiek eta haien etorkizuna izanik ere murrizketek lehenik baldintzatuko dituztenak. Ondoren, hezkuntzako langileen lan baldintzak eta azkenik, eta komeni da hori ere oso gogoan izatea, jendartea eta herri honen etorkizuna.

Eta murrizketa hitzaren esanahiaz gure artean galdetuz gero? Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntzaren ardura nagusia duen Isabel Zelaak egin dituen adierazpenek, guri behintzat, ez digute



Ez dituztela murrizketak egingo
esan eta gero, herrialde horietako
eskoletan 9.000 ikasle berri gehiago
izango direla esan zuen harro Isabel
Zelaak. Eta irakasle kopuruak iaizko
bera izaten jarraituko du



argibide askorik eman. Izan ere, ez dituztela murrizketak egingo esan eta gero, herrialde horietako eskoletan 9.000 ikasle berri gehiago izango direla esan zuen harro. Eta irakasle kopuruak iaizko bera izaten jarraituko du. Pezetan garaiko txiste hura dirudi, gasolina etengabe garestitzen ari zela ohar-tu ez zen harena, beti 2.000 pezeta botatzen baitzituen deposituan.

Ekonomiak behartutako murrizketak omen. Gastua ala inbertsioa, hezkuntza zer ote den serioski aztertzea eskatzen ari da geroz eta ahots gehiago. Harrigarri da, baina ahots horiekin bat egin dezake baita ere Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak (OCDE).

Erakunde horrek, *Hezkuntzaren egoera 2011* txostena aurkeztu berri du. Hamaika azterketa eta kalkulu egin dituzte eta datu garrantzitsu bat plazaratu dute: hezkuntzan inbertitzen den euro bakoitzeko 3,9 euroko mozkina erdiesten da. Ondorioa ere atera dute: hezkuntzaren onurak oso

handiak dira bai norbanakoarentzat bai jendartearentzat.

Bistan da, interes ekonomikoei begira dagoen erakunde horrek ere ez lituzkeela hezkuntzan murrizketak egingo. Beste hark esango lukeen gisan: egungo ogia, biharko gosea! ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



goizeroko kafea hartzera zoazela, eskatu eta tabernariak euskaraz galdetzen dizula nolakoa nahi duzun. Egunkaria leitzea bazoazela eta *Berria* baino ez duzula aukeratu Irulegiko Irratia entzuten duzularik.

Aldameneko dendara egin, eta dendariak daramazun eros zerrenda papertxoaz ez duela ulertzen. Gaizki apartatu duzun kotxearen ondoan dagoen udaltzainak ez dizu zurean mintzatzen, eta ulertzen ez duzun hizkuntza horretan idatzitako isuna ematen dizu. Erreklamatzera zoaz eta ez dizute kasurik egiten, zure hizkuntza arrotza zaielako. Etxera joan zara latsa-latsa eginda. Arratsal-

Eman dezagun

dean zinemara eraman nahi zenuke zure haurra. Karteldegia arakatu duzu eta ez duzu zure hizkuntzan dagoen filmarik. Desesperatuta, herriko frontoira zoaz haurrarekin jolasteko asmoz. Berdintsu, ez duzu kiderik atzematen. Uste zenuen bazterketa lan eskaintzarekin bakarrik gertatzen zitzaizula, euskara jakin ezean ez zenuela ogibiderik, orain ikasi duzu bizibidea ere ez duzula euskara ikasi gabe. Eta, hala ere, zure arbasoen sorterrian zaudela badakizu, euskaldundu herria izanik ere, zure betiko lurreen bizi zarela badakizu. Duzuna ez da eskizofrenia, bortxaz euskaldundu erdal herri izandakoaren erdalduna zara. ■

